#### 5.1.2.2. Azterketaren txostena

Azterketa, estrategia analisiaren metodologiari jarraiki egingo da.

Inguruaren analisian, honako informazio hau landu behar da, hots.

- Beharrak: sumatutako edo jasotako beharrak –hartzaileen eskaerak-, arau beharrak –argitalpen espezializatuak, programako adituen iritziak, legedia eta administrazioen planak-, erkatutako beharrak -erreferentziako antzeko programak-, adierazitako beharrak –zerbitzuen erabileraren gaineko datuak-.

- Baliabideak: Daudenak, adingabe eta famili hartzaileen erabilera, baliabideen egokiera haien ezaugarrietara.

Beharren zein baliabideen azterketa programaka egin behar da (IVO, familia eta elkarbizitza, prebentzioa eta gizarteratzea eta sustapena eta gizarte lankidetza), azterketa populazioko azpitalde jakin batzuen gainean zentratu arren.

Beharrak zehaztu ondoren lehentasunak finkatu beharko dira, dauden baliabideak kontuan hartuz.

Behin tokiko lana egin ondoren eta azterketari buruzko txostenaren gaineko zirriborro bat egin ondoren, kontrastatu eta itxik egingo da, programa bere baitan biltzen duen udal departamentuaren eta hezitzaileen artean egingo den bilera batean.

Antolaketaren analisia, aurrerago ager daitezkeen kudeaketa alor desberdinen arabera egingo da.

Behin lan saioa amaitu ondoren, txostena itxiko da, aurkezten den gidoiari jarraiki.

### AZTERKETAREN TXOSTENA EGITEKO JARAIBIDEAK

Aurkezpena

Ondoren aurkeztuko ditugun laneko jarraibideek, **azterketaren txostena oinarritu behar den gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze programaren "azterketa estrategikoari" begira** egitea erraztu nahi du.

"Azterketa estrategikoa":

- Plangintzako tresna bat da, antolakuntza bere osotasunean hartzaileen beharrak asetzera bideratzeko aukera ematen duen tresna da.
- Gizarte eta hezkuntza arloko esku hartzearen udal programa gauzatzeko plana egiteko oinarria da.
- Beraz, esku hartze eta kudeaketa alderdiak jasotzen ditu.
- Inguruan eta antolaketan zentratzen da, nahiz eta antolaketaren azterketa, inguruaren azterketaren osagarria izan (antolaketa da, inguruko beharretara egokitu behar duena, bere nortasunari eutsiz).

Inguruaren azterketa, bestalde, azterketan edo beharren ebaluaketan eta azterketan edo baliabideen ebaluaketan zatitzen da.

Hartzaileen eta erabiltzaileen beharrak ebaluatzeko orduan, Bradshaw-ren beharren sailkapen mota erabiliko dugu: arau beharrak, sumatutako beharrak edo jasotakoak, adierazitako beharrak eta erkatutako beharrak.

- Arau beharrak, arauarekin loturik daude, izan behar duenarekin, teknikariek zehaztutakoa (programako adituak, literatura,...) eta politikoek (legedia, administrazio publikoen plan desberdinak,...).
- Sumatutako beharrak edo jasotakoak dira, erabiltzaileek edo hartzailek dituztela diotenak, beren eskaerak.
- Adierazitako beharrak ez dira eskaerak, berbalizazioak; zerbitzuen erabilerari buruzko datuak dira (itxaron zerrendak, ...).
- Erkatutako beharrak konparaketaren bidez ezartzen dira, hau da, antzeko ezaugarriak dituzten erabiltzaileei edo hartzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuekin konparatuz agertzen direnak dira, aitzindariak dira,... .

Beharren ebaluaketa egiteko garaian kontuan izan behar dira, beharrak zehazteko lau iturriak.

Baliabideen ebaluaketa egiteko, lehenik zerbitzuak identifikatu behar dira –programak eskaintzen dituenaren antzekoak edo orokorrak-, programaren erabiltzaileak edo hartzaileak eskura ditzaketenak, alegia. Bigarrenik, aztertu beharrekoa da, baliabideak zenbateraino egokitzen zaizkien hartzaileei edo hartzaileen azpitaldeei. Honek berez dakar elkarrizketak izatea baliabideekin, behaketa partehartzaileak egitea,... .

Eta azkenik, antolaketaren analisiak berez dakar, oraingoz behintzat, antolaketaren barneko zubi sendo eta ahulen identifikazioa kudeaketa arlo edo funtzio desberdinen inguruan (plangintza, koordinaketa, informazioaren kudeaketa, giza baliabideen kudeaketa, baliabide material eta ekonomikoen kudeaketa, ezagupenaren kudeaketa eta antolaketaren eta inguruaren arteko elkartrukaketaren kudeaketa).

Beharren eta baliabideen ebaluaketako eta antolaketaren analisiaren zati diren elementu asko, aldez aurretik landuta egongo dira, txostenen edo ebaluaketen laburpena egiterakoan.

Oraingoan, ordea, elementu hau eta tokiko bilketa lanaren ondorioz lortzen diren datuak, amaierako txosten batean erkatu behar dira.

Ondoren txostena aurkeztuko dugu, atal bakoitzean bildu behar diren alderdiak deskribatuz.

## I. Txostenaren egitura

**I. TXOSTENAREN EGITURA**

**1. SARRERA**

1.1. Programaren deskribapen laburra (fitxa teknikoa)
1.2. Programaren helburuan egindako mugaketak edo eguneratzeak
1.3. Azterketaren gaia eta helburuak, berariaz aztertutako biztanleria eta erabilitako sistemak
1.4. Txostena irakurtzeko oharrak
1.5. Aurkibidea

**2. NORABIDEA**

### 1. Sarrera

Lehenik, aurkeztu behar den txostena egituratu behar da, programa ezagutzen ez duen hark ere ulertzeko moduan.

1.1. Txostenaren egitura, **programaren deskribapen** labur batekin hasten da txostena, nahiz eta beharrezkoa ez izan. Egina dago (programaren fitxa teknikoa).

Era berean, programaren helburuaren aitorpen bat (ikus fitxa teknikoa) eta bi zutabeko taula bat egin daitezke, batean zerbitzuak/jarduerak-proiektuak, eta bestean, zuzentzen zaizkien pertsonak jasoz.

1.2. Bigarrenez, egin den programaren helburuaren eguneraketa edo mugaketa (helburua eta hartzaileak) aurkeztu behar da. Azterketa, lehentasuna eman zaien hartzaileen azpitaldeekin eta beharrekin lotutako egoeratan zentratuko zen batez ere, baina arreta jasotzeko gai izan daitekeen populazio zati hori ahaztu gabe.

Programaren helburua eta azterketa mugatzeko orduan, kontuan hartuko dira, aldez aurretik egindako ebaluaketak eta hezitzaileek eta programa bere baita biltzen duen departamentuak egindako hausnarketaren emaitzak.

1.3. Behin azterketa programaren fitxa teknikoaren eta helburuaren eguneratze eta mugen barne sartu ondoren, **txostenaren hartzaileak eta beren interesak, txostenaren helburuak, xede duen populazioa eta azterketa egiteko erabilitako sistemak deskribatu** behar dira.

Besteak beste, ondoko alderdi hauek jaso behar dira:

- Nori zuzentzen zaion txostena (audientzia) eta audientzia horrek zer interes duen (zer jakin nahi duen). Horretarako, aldez aurretik, galdetu egin behar izan zaio eta, beharrezkoa izanez gero alderdi berriak jaso azterketaren diseinuan (esaterako, gizarte ongizate batzordeko zinegotziei galdetuz).

- Audientziaren interesen arabera, txostenaren helburuak adierazi behar dituzue (zertarako egiten da, zer jakin nahi da, zer motatako erabakiak hartzeko aukera ematen du). Azterketa bat denez (azterketa estrategikoa), esku hartzea sozialki zuritu beharko da, programaren jarraibideei buruzko erabakiak hartzea, antolaketaren alderdiak garatzea edo zuzentzea beharren bilakaerari hobeto egokitzeko,... .

- Norengan zentratzen da txostena (populazio jaki hori)

- Zein informazio iturri erabili dituzue.

- Nork hartu du parte txostena egiterakoan, udal departamentuko gainontzeko profesionalekin erkatu den ala ez eta nola.

1.4. Ondoren **txostena irakurri behar duenari lana erraztu behar zaio, nola irakurri behar duen erakutsiz.** Horretarako nahikoa izango orri bat eta bertan zer den garrantzitsua eta nola dagoen egituratuta adieraziko da (egitura, deskribapena, balorazioa eta jarraibidea). Komenigarria da egituratik hastea eta ondoren atzeraka, jarraibideetatik.

1.5. Txostenaren egitura **Aurkibidearekin** amaitzen da, irakurketa errazten duena.

## 2. Antolaketaren jardunbidea eta egungo egoera.

Labur bilduko dira ondoko alderdiak:

Programaren jardunbidea udalerrian ezarri zenetik aurrera: programari eman zaion jarraibidea eta aldaketarik izan den ala ez, programaren integrazioaren gaineko bilakaera eta hezitzaileak udal departamentuaren barne, arreta jarri den kolektiboen bilakaera, helburuak, esku hartzeak, baliabideak, barneko antolaketa, ... .

Egungo egoera, zailtasunak, erronkak eta helburuak esku hartzeari dagokionez eta programaren kudeaketari dagokionez.

# II. INGURUAREN AZTERKETA

## 3. Beharren eta baliabideen ebaluaketa

### 3.1. Beharrak

#### 3.1.1. Demografiaren mugimendua

Udalerriko populazioaren guztizko bolumena, azkeneko erroldako datuen edo beste iturrien (Eustat) arabera.

- Udalerriko populazio piramidea, datuak ondorengo adin multzoen arabera antolatuz.

  0-3, 4-6, 7-10, 11-16, 17-18, 19-25, 26-30, 31-40, 41-65, 66-75, 76 edo gehiago

- Izan duen bilakaera eta udalerriko demografian eragina izan dezaketen bestelako faktoreen arabera izan dezakeena adieraztea (migrazio saldoa, jaiotze tasa, ...). Baina, interesgarria da batez ere, haur eta gazteen populazioak izan duen eta izan dezakeen bilakaera. Bestalde, komenigarria da jasotzea, migrazio saldoaren eta jaiotze tasaren bilakaerak, enplegu tasako hobekuntzak, aurreikusitako inbertsioak, babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzaren aurreikuspenak,... . Era berean, duela urte batzuetako populazioaren piramidea sar daiteke, egungoarekin erkatzeko.

  Beste era batera esanda,

  Udalerriko populazioa, oro har, hazi edo gutxitu egin da?, zein kopurutan eta zein garaitan?, zergatik?, zein da joera epe ertainera?, zergatik?

  Udalerriko populazioa, oro har, hazi edo gutxitu egin da?, zein kopurutan eta zein garaitan?, zergatik?, zein da joera epe ertainera?, zergatik?

### 3.1.2. Arau beharra

**A.- Deskribapena adierazleen arabera**

**A.1.- Adingabeen edo gazteen arrisku egoera osatzen duten faktoreetatik adingabe edo gazte horietatik kanpo dauden faktore desberdinei buruzko egoera zein den adierazi.**

#### EZAUGARRIAK FINKATZEKO ADIERAZLEAK

20 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien ikaskuntza maila, famili burua kontuan hartuz (analfabetoak+ ikasketarik gabeak+ lehen mailako ikasketak/...) –udalerriko populazio osoa-.

| Ikasketa maila | |
|---|---|
| Analfabetoak+ ikasketarik gabeak + lehen mailako ikasketak | |
| Bestelakoak | |
| Guztira | |

Iturria: Eustat

Lanik gabeko egoeran dauden pertsonak adin multzoka (langabezia tasa)
– populazio osoa-

| Adin multzoak | Maiztasuna | Tasa |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| GUZTIRA | | |

Iturria: Eustat

Langabezia tasa orokorra ____________________

Iturria: Eustat

20 urtetik beherako seme-alaba gazteak dituzten familietako Aiten / amen edo zaintzaile nagusien adin multzoak famili buruaren arabera –populazio osoa-

| | |
|---|---|
| 18 urtetik beherakoak | |
| 18-29 | |
| 30-40 | |
| 41-50 | |
| 51-65 | |
| 65 urtetik gorakoak | |
| GUZTIRA | |

Iturria: Eustat

Guraso bakarreko familien kopurua udalerrian ______________

Iturria: GFA- Gizartekintza

**A.2.- Ondorengo faktoreen eragina adierazi adingabe eta gazteengan.**

## EZAUGARRIAK FINKATZEKO ADIERAZLEAK

Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoko adingabe edo gazteen kopurua

| Min. fisikoa | Min psikikoa | Zentzumen-min | Guztira |
|---|---|---|---|
| | | | |

Iturria: osasun etxea

Beren gizarteratzea edo beren partehartzea edonolako jardueretan baldintzatzen duten gaitz kronikoak dituzten adingabe edo gazteen kopurua.

| Gaitz mota | Maiztasuna |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| GUZTIRA | |

Iturria: osasun etxea

## ERAGINAREN ADIERAZLEAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Adingabeak edo gazteak espedientea irekita eduki du Auzitegian azkeneko bi urteotan –eta dauka- | Adingabeak edo gazteak espedientea dauka irekita Auzitegian. | Adingabeak edo gazteak ez du espedientea irekita eduki du Auzitegian azkeneko bi urteotan. | | | | | | |
| Adingabea edo gaztea instituzioetan egon da azkeneko bi urteotan –eta dago- (babespen edo erreforma etxeak , kartzela,...). | Adingabea edo gaztea instituzioren batetan dago denbora jakin baterako | Adingabea edo gaztea ez da instituzionalizatuta egon azkeneko hiru urteotan. | | | | | | |
| Adingabeak ez du aurrera egin (lehen mailako ikasketak), ez du aurrera egin edo aurrera egin du gainditu gabeko bi ikasgaiekin (DBH) edo gainditu gabeko bi ikasgai baino gehiago izan ditu (ESPO) azkeneko bi urteotan. | Adingabeak aurrera egin du (lehen ikaskuntzan), aurrera egin du gainditu gabeko ikasgai batekin edo birekin (DBH) edo azkeneko bi urtetan gainditu gabeko ikasgai bat edo bi izan ditu. (ESPO). | Adingabeak aurrera egiten ari da modu egokian (lehen ikaskuntzan), aurrera egin du (DBH) edo ikasgai guztiak gainditu ditu (ESPO) azkeneko bi urteetan. | | | | | | |

Gazte langabeziaren maiztasuna eta tasa (16-29 urte) – populazio osoa- ______|______

Iturria: Eustat

Drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta legez kanpoko drogak) 17 eta 17 urte bitarteko adin multzoan

Iturria: Drogamenpekotasun prebentzioko teknikaria

**B.- Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familien beharren deskribapena egitea, teknikarien (adituak) eta politikoen ikuspegitik (dekretuak, legeak, administrazio publiko desberdinen planak).**

**Beharrak berriro aurkeztu behar dira, komunitateko gizarte zerbitzuetako lau programa propioetan bilduta:**

- Informazio eta orientabide beharrak (arrisku egoeran dauden adingabe eta familien beharrak).
- Euskarri ekonomiko, etxeko laguntza eta elkarbizitzako bestelako aukeren gaineko beharrak (familien beharrak).
- Hezkuntza alorreko esku hartzeari buruzko eskaerak (adingabeak eta familiak).
- Baliabideko lan eskaerak, baliabideen garapena, komunitatearen jarreraren aldaketa.

### 3.1.3. Sumatutako edo jasotako beharrak

- Arrisku egoeran dauden adingabeek eta beren familiek egindako eskaerak[5] sartu.

Jasotako eskaerak biltzeko orduan, gizarte zerbitzu komunitarioen lau programa propioak hartu behar dira kontutan; eta, bide batez, eskaerak, ondoko kategorien arabera bilduko dira:

- Informazio eta orientabide beharrak (arrisku egoeran dauden adingabe eta familien beharrak).
- Euskarri ekonomiko, etxeko laguntza eta elkarbizitzako bestelako aukeren gaineko beharrak (familien beharrak).
- Hezkuntza alorreko esku hartzeari buruzko eskaerak (adingabeak eta familiak).
- Baliabideko lan eskaerak, baliabideen garapena, komunitatearen jarreraren aldaketa.

### 3.1.4. Adierazitako beharrak

- Gizarte zerbitzu sistemaren beraren ondoko zerbitzuen erabileraren gainean eskuartean dauzkagun datuak jaso:

- GGD eta GLL programetako laguntza jasotzen duten arrisku egoerako adingabe edo gazteak dituzten familiak (famili kopurua eta adingabeak).
- Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen duten arrisku egoerako adingabe edo gazteak dituzten familiak (famili kopurua eta adingabeak).
- Gizarte larrialdietako etxebizitzak erabiltzen dituzten arrisku egoerako adingabe edo gazteak dituzten familiak (famili kopurua eta adingabeak).
- Arrisku egoerako adingabe edo gazteak dituzten familien (famili kopurua eta adingabeak) parte hartzea programa terapeutikoetan –hezkuntza eta familia-terapia-
- Instituzionalizatutako adingabeak
- Babes etxeetan eta erreforma-etxeetan sartuta dauden adingabeen kopurua.
- Eta abar.

[5] Eskaerak (edo sumatutako edo jasotako beharrak) esku hartzearen hartzaileek behar dituztela dioten horiek dira –berbalizazioak-.

**EZAUGARRIAK EZARTZEKO ADIERAZLEAK**

GGL programako laguntza azkeneko bi urteotan, familiaka edo bizikidetza unitateka – populazio osoa-

| ADIERAZLEAK[6] | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| FAMILIA | | | | | | | |
| Familiak edo bizikidetza unitateak Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera jaso du azkeneko bi urteetan, nahiz eta aldian aldian – eta oraino jasotzen ari da. | Familiak edo bizikidetza unitateak Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera jasotzen du | Familiak edo bizikidetza unitateak ez du Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera jaso du azkeneko bi urteotan | | | | | |

Iturria: GFA-Gizartekintza

GLL programako laguntza azkeneko bi urteotan, familiaka edo bizikidetza unitateka – udalerriko populazio osoa-

| ADIERAZLEAK | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| FAMILIA | | | | | | | |
| Familiak edo bizikidetza unitateak Gizarte Larrialdietarako Laguntza jaso du azkeneko bi urteotan, nahiz eta aldian aldian –eta oraino jasotzen ari da-. | Familiak edo bizikidetza unitateak Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotze du | Familiak edo bizikidetza unitateak ez du Gizarte Larrialdietarako laguntza jaso azkeneko bi urteotan. | | | | | |

Iturria: GFA - Gizartekintza

[6] Testuinguruaren arabera (egokia denean) egoera bakoitzean dagoen adingabe, gazte eta familiak adierazi behar dira.

ELZ programako laguntza azkeneko bi urteotan, familiaka edo bizikidetza unitateka –populazio osoa-

| ADIERAZLEAK | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| FAMILIA | | | | | | | |
| Familiak edo bizikidetza unitateak etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso du azkeneko bi urteotan, nahiz eta aldian aldian –eta oraino jasotzen ari da-. | Familiak edo bizikidetza unitateak etxez etxeko laguntza zerbitzua jasotzen du. | Familiak edo bizikidetza unitateak ez du etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso azkeneko bi urteotan. | | | | | |

Iturria: GFA - Gizartekintza

## ERAGINAREN ADIERAZLEAK

| ADIERAZLEAK | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| FAMILIA | | | | | | | |
| Emazteak eta seme-alabek larrialdiko etxebizitza erabili dute ikasturtean zehar, azkeneko bi urteotan –eta oraino erabiltzen dute- | Emazteak eta seme-alabek larrialdiko etxebizitza erabiltzen dute. | Emazteak eta seme-alabek ez dute larrialdiko etxebizitza erabili azkeneko bi urteotan. | | | | | |
| Familiak edo bizikidetza unitateak hezkuntza eta/edo familia-terapiako programetan parte hartu du azkeneko bi urteotan –eta jarraitzen du-. | Familiak edo bizikidetza unitateak hezkuntza eta/edo familia-terapiako programetan parte hartu du. | Familiak edo bizikidetza unitateak ez du hezkuntza eta/edo familia-terapiako programetan parte hartu, azkeneko bi urteotan | | | | | |

### 3.1.5. Erkatutako beharrak

Interesgarriak izan daitezkeen antzeko programetako, orokorragoak izan daitezkeen, ... elementuak edo alderdi desberdinei buruzko informazioa jaso.

Honako galderari erantzutean datza, zertan hobetu behar da programa, ezagutzen dituzten eta zuen iritzian, alderdiren batean aitzindariak izan daitezkeen programetara parekatzeko?.

Deskribapena eta azterketa, gizarte zerbitzu komunitarioen lau programa propioen arabera egin daiteke

### 3.2. Baliabideak

- Udalerrian adingabe, gazte eta familiei zuzentzen zaizkien baliabide guztien zerrenda bat egitea, zein den baliabidearen eragin eremua adieraziz (adingabeak, gazteak eta familiak edo/eta teorian esku hartzea zuzentzen zaien kolektiboak bizi diren udalerriko zona: auzo bat, udalerri osoa,...).

  Kontuan hartu behar dira:

- Hezkuntza formaleko baliabideak, arautuak eta ez arautuak (lanbide hastapeneko ikastegiak, gizarte bermerako programak, heziketa okupazionala,...).

- Hezkuntza ez formaleko baliabideak, hezkuntza eta gizarte arlokoak (eskolaz kanpoko jarduerak, denbora libreko taldeak, kultur etxeak, kanpaldiak, udalekuak,...)

| Baliabidearen izena | Berariazkoa | Arautua | Egokitua[7] | Programa ezagutzen dute | Programan parte hartzen dute | Arrisku egoeran dauden erabiltzaileen kopurua | Estaldura zona[8] |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |
| | | | | | | | |

[7] Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta/edo familiak jasotzen ditu.
[8] Baliabideen eta lagun taldeen, familien bizitokien mapak sartu

GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA PLANIFIKATZEKO SISTEMA

BALIABIDEEN ETA ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEN ARTEKO EGOKIERA MAILAREN AZTERKETA

| ADIERAZLEAK | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| **Dauden testuinguru/baliabide/gune edo hezkuntza programen eta arrisku egoeran dauden adingabeen eta familien ezaugarrien arteko egokiera maila** | | | | | | | |
| Baliabide komunitarioek ez dituzte arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiei zuzendutako informazio kanpainak egiten (eskaintzaren asetasunagatik izan arren). | Baliabide komunitarioak arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiei zuzendutako informazio kanpainak egiten dituzte, haien ezaugarrietara egokituz, mezuak eta erabilitako bide eta euskarriak. | Arrisku egoeran dauden adingabeek, gazteek eta familiek ezagutzen dituzte baliabideak eta beraietara iristeko moduak. | | | | | |
| Ez dago gizarte eta kultura eta/edo hezkuntza baliabide (eskolaz kanpoko jarduerak barne) arauturik eta egokiturik udalerrian edo “barrutietariko” batean. | Gizarte eta kultura eta/edo hezkuntza baliabideen eskaintza arautua eta egokitua (eskolaz kanpoko jarduerak barne), eskatutakoa baino gutxiago da edo gaizki banatuta dago geografikoki. | Gizarte eta kultura eta/edo hezkuntza baliabideen eskaintza arautua eta egokitua, eskatutakora egokitzen da eta ondo banatuta dago geografikoki. | | | | | |
| Jarduerak ez dira adingabearen edo gaztearen interesetara egokitzen (adingabeen edo gazteen berbalizazioak). | Jarduerak –eskatutakoren bat behintzat- adingabeak edo gazteak hasieran adierazitakora egokitzen dira. | Adingabearen edo gaztearen interesak zabaltzen joan dira, taldeko partehartzearen ondorioz. | | | | | |
| Jarduerak ez dira adingabeen edo gazteen gaitasunetara egokitzen (errefortzuaren atzerapen gaitasun handiagoa eskatzen dute, eta/edo partehartzearen jarraipena eta/edo sarrera eta irteera ordu jakin batean,...). | Jarduerak –eskatutakoren bat behintzat- adingabearen edo gaztearen gaitasunetara egokitzen dira. | Adingabeak edo gazteak bere gaitasuna gehitzen joan da pixkanaka, jardueretan partehartzearen ondorioz. | | | | | |

| ADIERAZLEAK | | | TESTUINGURUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | EP | E | F | AD | BK |
| Jarduerak ez dira adingabeen edo gazteen egoera ekonomikora egokitzen eta ez dago "beka" edo ordainketaz salbuesteko sistemarik eta, ondorioz, adingabea edo gaztea ezin jarduerara bildu. | "Beka" eta/edo salbuespen sistemak sartu dira, adingabeak edo gazteak burutzen diren jardueratan parte har dezan errazteko. | Familiak (pixkanaka eta bere aukerak gehitzen doazen neurrian) jardueraren kostua ordaintzen laguntzen du. | | | | | |
| Monitoreek, hezleek eta gainontzeko mutikoek,... erabiltzen duten hizkuntza eta adingabeak edo gazteak erabiltzen duena oso edo nahiko desberdinak dira. | Monitoreek, hezleek, gainontzeko mutikoek,..., hasieran, beren hizkuntza adingabe edo gazte horien hizkuntzara egokitzen ahalegintzen dira, pixkanaka, lexiko, espresio berriak,... sartuz. | Adingabeak edo gazteak bere hizkuntza hobetu du taldean edo jardueran parte hartzen duenetik. | | | | | |
| Jardueretan parte hartzeko arauak oso konplexuak eta zorrotzak dira eta hasieratik bertatik bermatu behar da osotasunean betetzea. | Adingabea edo gaztea jardueran eta taldean integratzen da, oinarrizko arau erraz batzuk (minimoak) errespetatuz. | Adingabeak edo gazteak bereganatu egin ditu oinarrizko arauak eta taldean edo jardueran jarraitzen du, arauen sistema aberastuz. | | | | | |
| Monitoreak, hezleak ez dira argiak mugak adierazterakoan eta ez datoz bat gatazka egoera bat konpontzeko orduan. | Monitoreak, hezleak argian dira mugak adierazterakoan eta bat datoz gatazka egoerak konpontzeko orduan. | Adingabeak edo gazteak bereganatu egin ditu oinarrizko arauak eta taldean edo jardueran jarraitzen du, arauen sistema aberastuz. | | | | | |
| Monitoreak, hezleak eta gainontzeko adingabeak homogeneoak dira, beren gizarte egoerari eta aberrei dagokienez, eta desberdinak adingabearen edo gaztearen aldetik. | Monitoreak, hezleak eta gainontzeko adingabeak homogeneoak dira beren gizarte egoerari eta abarrei dagokienez eta adingabearen edo gaztearenaren berdinak. | Adingabea edo gaztea talde batean edo Jarduera batean integratu da, hezleekin, monitoreekin edo gizarte egoera hetereogeneoko adingabeekin, bai eta arrisku egoera edo egoera okerragoan dauden beste adingabeekin, burutzen direnetan. | | | | | |
| Metodologia guztiz zuzentzailea da. Adingabeak edo gazteak ez du parte hartzen jardueraren diseinuan eta ebaluaketan. | Adingabeak edo gazteak pixkana hasten da parte hartzen jardueraren diseinuan eta ebaluaketan. Metodologia partehartzailea da. | Adingabeak edo gazteak beretzat hartzen du jardueren antolaketa, monitoreekin edo hezleekin batera (elkarkudeaketa) | | | | | |

KOMUNITATEAREN SENTSIBILIZAZIOA

- Komunitatearen, bere osotasunean, eta arrisku egoeran dauden adingabe, gazte eta familiei begira dauden baliabide komunitarioen sentsibilizazio maila adieraztea. Ondoren zehazten diren adierazleak har daitezke kontuan:

- Parte hartzea jardueretan, hitzaldietan.

- Arrisku egoeran dauden adingabe, gazte edo familiei zuzentzen zaizkien jarduerak burutzen edo populazio osoari zuzendutako jarduerak izan arren, arrisku egoeran dauden adingabe, gazte edo familiek esku hartzeko moduko jarduerak antolatzen dituzten elkarteen, taldeen,... kopurua (bolondresen kopurua elkarteetan, taldeetan,... datu hori izanez gero).

- Komunitatean estereotipoak edo aurreiritziak daudela erakusten dituzten jarrera adierazgarriak.

## III. ANTOLAKETAREN AZTERKETA

### 4. Antolaketaren azterketa kudeaketa alorka

Ondoren, antolaketaren gaineko zuen azterketa egitea da helburua. Kontuan izan behar dira, hezitzaile taldea programa bere baitan hartzen duen departamentuan funtzionalki atxikitzeari buruz ezarri diren jarraibideak, Udaleko beste departamentuekiko eta herri mailako beste zerbitzu sistemekiko (hezkuntza, osasuna) koordinazioa, plangintza sistemaren garapena, eta abar.

Kudeaketa alorkako gidoi orientagarri bat ezarri da, kasu bakoitzean jorra daitezkeen aukera batzuk adieraziz. Gauza taula osatzea da, zuen iritziaren arabera kendu beharrekoa kenduz eta gehitu beharreko gehituz.

Edonola ere, ondokoak deskribatu behar dira:

Taldeak dituen baliabide materialak:

> Lanerako tokia (m2, ekipamendua, material suntsigarria,...) jarduerak burutzeko lokalak (m2, ekipamendua, material suntsigarria,...), Departamentuak eta beste Udal Departamentuek diskriminazio positiboaren alde hartutako neurriak, beti ere arrisku egoeran dauden adingabeen eta familien sarrera, hala kirol instalazioetara, nola kulturaletara, ... errazteko.

Hezle taldea programa burutu behar duen Departamentuko lan eskemaren barne sartzeko aurreikuspenari dagokionez:

> Programa bere gain hartu duen Departamentua, Departamentuko profesional desberdinen rola Programan, kaleko hezitzaileen funtzioak eta erlazio funtzionalak, zein modutan hartzen duten parte hezitzaileek Departamentuaren plangintzan, duten eta ematen duten informazioa, komunikazio bideak eta

tresnak, hezitzaileen eta GLUen edo lurraldeko bestelako unitate operatiboen arteko loturak, profesionalen arteko koordinazioa lan honetan, beste udal departamentuekiko eta herriko gainontzeko zerbitzu sozio-komunitarioekiko koordinazio sistemen aurreikuspena.

## ANTOLAKETAREN AZTERKETARAKO GIDOIA KUDEAKETA ALORKA

Ondoren programaren azterketa kudeaketa alorka egiteko taula bat agertzen da.

Zenbait elementu iradokitzen dira.

Jaso ditugun kudeaketa arloak, Fernando Fandovak EDE Fundazioarekin elkarlanean diseinatu duen kudeaketa ereduaren araberakoak dira.

Programen kudeaketak esku hartzeari, ematen diren zerbitzuei egiten dio erreferentzia.

Gizarte ekimenaren kudeaketa, emakumezkoaren sustapenarekin, lanaren banaketarekin, erakundearen ingurugiro inpaktuaren zaintzarekin eta beste hainbat alderditan zentratzen da. Ematen dituen zerbitzuez gainera, erakundeak bestelako ekarpenak egiten dizkio komunitateari (enplegua sortu herrian,  ingurugiroaren hobetzea,...).

Kudeaketaren beste arloak azaltzeko, adibide bat jarriko dugu.

Begira ditzagun orain urte batzuetako udaletako gizarte zerbitzuak. Asko eta askok gizarte laneko profesional bat edo bi baino ez zituzten. Departamentua kudeatzeko ardura duena, erabiltzailearen arreta zuzeneko funtzio asko betetzen ditu oraino.

"Antolakuntza" txiki honek, ordea, kudeaketako oinarrizko funtzioak beteko ditu:

Bere esku hartzea planifikatzen du, bere helburuak, antolaketarekin bete nahi duena, nori zuzentzen zaion, zer eta nola egin behar duen (plangintza) eta koordinazioa bilatzen du, bilerak jartzen ditu, barne komunikaziorako bideak zehazten ditu,... (koordinazioa).

Horretaz gainera, kanpo informazio adierazgarria erabiltzen du, hau da, beste erakundeei, hartzaileen behar eta eskaerei, dirulaguntzei eta abarri buruzko informazioa eta gehien interesatzen zaion informazioa, nor eta iristeko bideak definitzen doa. Informazioa ere sortzen du eta zer informazio nori eman definitzen du (informazioaren kudeaketa).

